



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO EKAINAREN 8AN
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2021/05/25.

Batzarkideek, 2021eko maiatzaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- JOAQUINA AZKONOBETA ESNALI GOROSTIDI BASERRIKO LURRETAN,
LANDALURREKO 1. POLIGONOKO 34. PARTZELAN HARAGITARAKO BEHI-
AZIENDARENTZAKO UKUILUA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0329

JOAQUINA AZKONOBETA ESNAL andereak, Aginagan, Gorostidi baserriko lurretan, landaluerreko 1. poligonoko 34. partzelan haragitarako behi-aziendarentzako ukuilua eraikitzeke udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	50.916,26 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 516,88 €
	Fidantza (%120): 620,26 €.

LANDA INGURUNeko DEPARTAMENDUA

82/98 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera, Diputazioko Ekonomia Sustapeneko Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari bere iritzia eskatu zitzaion eta honek hitzez hitz ondoko txostena eman zuen:

Ekonomia Sustapeneko Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak lurzoru hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituen azaroaren 24ko 8211998 Foru Dekretuaren 1.



Usurbilgo Udala

artikuluari aipatzen den txostena egin dezan eskatuz, udal horrek egm duen eskaerari erantzunez, Departamentu honek ondoko txosten hau prestatu du:

**GOROSTIDI BASERRIKO LURRETAN HARAGITARAKO BEHIAZ-
ZIENDARENTZAKO UKUILA ERAIKITZEKO USURBILGO UDALAK
AURKEZTUTAKO EXEKUZIO PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA.**

Txosten hau Usurbilgo Udalaren eskariz egin dugu, 1998ko azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuak, lurzoru hiritarrezinean eraikitze baimen eta lizentziak emateko jarduketan koordinazioari buruzkoak eta 177/2014 Dekretuak, zeinak onartzen baitu Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala, xedatzen dutenaren arabera; hain zuzen ere, egin nahi den eraikina egiteko baimena eman aurretik nekazaritza-abeltzaintza ustiapenarekiko zer lotura duen baloratzeko, eta zehazki, proposatutako eraikina finkaren izaera eta erabilerarekin egokia den adierazteko.

Baimen eskatzaileak, Joaquina Azkonobieta Esnal, "Gorostidi" ustialekuaren izenean egiten du eskaera. Ustialeku hori Gipuzkoako Nekazaritzako Ustialekuen Erroldan 1994an inskribatu zen.

Ustiategian hainbat behi buru daude, baserriko lurretan bazkatzen dutenak. Gainera, sagardotarako 4,5 Ha. inguru sagarrondo ditu.

Ustiategiko ukuilua, hasiera batean, Gorostidi baserriko beheko solaituan zegoen. Eraikina eraberritzean, ganadua baserriatik bertatik ateratzea planteatu zen. Urte batzuetan zehar, eta abereentzako irtenbide egokia bilatzen zen bitartean, batzuetan, bere burua mantendu du inguruko baserri bateko beste ukuilu batean. Baserri horren beharrak direla eta, ganadua baserriatik atera behar da. Hori dela eta, ukuilu bat eraikitzea proposatu da, ustiategi honen beharrak asetzeko.


Interesatuak, Gorostidi baserriko lurretan 155 m²-ko ukuilua eraiki nahi du ustialekuko behientzako.

Nekazaritzako Ustialekuen Erroldan jasotako datuen arabera, gaur egungo ustialekuaren maila ekonomikoak gainditu egiten du lehentasunezko ustialeku bati eskatzen zaion bideragarritasuna.

Interesdunak nekazaritzan jarduteko gaitasun profesionala egiaztatua du, bere ustiategian lanean daramatzan urteengatik; beraz, betetzen du 82/98 Foru Dekretuak jarritako irizpideetan eskatzen dena.

Proposatutako kokapena (1. poligonoko 34. partzela) "Basoa" antolamendu-kategoriaren barruan dago EAeko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera (irailaren 16ko 177/2014 Dekretua). Kategoria horien barruan nekazaritzarako zerikusia duten eraikinak ezartzea erabilera onargarria ez den arren, kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Ereku Naturaletako Zerbitzuaren aldeko txostena jaso du.

Hori guztia kontuan hartuta, eta 82/1998 Foru Dekretuaren ondorioetarako, Landa Garapeneko eta Nekazaritza Egiturarako Zerbitzu



Usurbilgo Udala

honen aldetik ez dago eragozpenik GOROSTIDI BASERRIKO LURRETAN HARAGITARAKO BEHI-AZIENDARENTZAKO UKUILUA ERAIKITZEKO.

Nolanahi ere, Usurbilgo Udalarik jakinarazi nahi diogu txosten honetan ez ditugula baloratzen egin nahi diren eraikin horren hirigintzaren alderdiak edo bestelakoak, proiektu arkitektonikoa, osasun eta ingurumeneko arauak betetzea, eta abar.

Jakin dezazun eta bidezkoak diren ondorioetarako adierazten dizut hori.

Donostian, 221ko martxoaren 18an
FORU DIPUTATUA
Sin. Jabier Larrañaga Garmendia

URA – UR AGENTZIA

Eusko Jaurlaritzako Ur agentziak ere, bere ebazpena helarazi du 2020ko azaroaren 16an. Ebazpenak honela dio hitzez hitz:

Erref./Ref.: AO-G-2020-0292

EBAZPENA Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, baimena ematen diona JOAQUINA AZCONOBIETA ESNAL-i obra hau egiteko: USURBILGO UDAL- MUGARTEAN (GIPUZKOA), SARIKOLA EDO KOSKOLLOKO ERREKAREN ESKUINALDEKO IBILGUEN POLIZIA-EREMUAN, GOROSTIDI BASERRIA, HARAGITARAKO BEHI-AZIENDARENTZAKO UKUILUA EGITEKO OBRAK

AURREKARIAK

1.-2020/10/02an, JOAQUINA AZCONOBIETA ESNAL-ek eskabide bat aurkeztu zuen Uraren Euskal Agentzian, aipatutako obrak egiteko baimena lortzeko. Eskabidearekin batera, obra horiek deskribatzen dituen dokumentazio teknikoa ere aurkeztu zuen.


2.-2020/10/14ean dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen JOAQUINA AZCONOBIETA ESNAL-ek Uraren Euskal Agentzian.

3.-Uraren Euskal Agentziak txostena egin zuen 2020/11/10ean, eta proposatu zuen JOAQUINA AZCONOBIETA ESNAL-i ematea eskatutako obra-baimena.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- IZAERA JURIDIKO-FORMALEKOAK

1.- Ekainaren 23ko 1/2006 Uraren Legearen 7. artikulua eta harekin bat datozenek ezartzen dutenaren arabera, Uraren Euskal Agentziari dagokio ur-baliabideak antolatu eta ematea, eta baimenak ematea ere bai, oso- osoz Euskal Autonomia Erkidegoan dauden arroetan ur-jabari publikoa eta uren zein ibilguen poliziaz erabiltzeko edo aprobetxamendua egiteko.



Usurbilgo Udala

2.- Uraren Euskal Agentziaren Estatutuen 7.2.a) artikulua ezartzen duenez (martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren bidez onartu ziren estatutuok), zuzendari nagusiari dagokio baimen hau ematea.

II.- IZAERA JURIDIKO-MATERIALEKOAK

1.- 1/2006 Legearen 30. artikuluan ezartzen denez, uren arloko legeriari lotuta egongo da emakidak eta baimenak emateko araubidea.

2.- Eskatu diren obrak baimenduz gero, erabili egingo da Saria kola edo Koskolloko erreka toren zaintza-eremua (Zona drenante a Oria - Oligohalino ibaiaren barruko arroaren isurian), xedapen hauetan aurreikusi bezala: Uren Legearen testu bateginaren 6.b) artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren 9. artikulua, 52.etik 54.erakoak, 78.a, 126.a eta horiekin bat datozenak. Horren guztiaren tutoretza Uraren Euskal Agentziari dagokio.

3.- Aurkeztu den eskaerak aurrekontua eta aipatutako araudietan jasotako baldintzak betetzen ditu. Hori dela eta, herritarren interesa eta egin den proposamen-txostenean jasotako irizpideak kontuan izanda, bidezkoa da eskatu den baimena ematea.

Aipatu diren egitezko eta zuzenbideko oinarrien arabera, eta aipatutako xedapen arautzaileak eta oro har nahiz bereziki ezartzeak diren gainerakoak ikusita, hauxe,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- BAIMENA EMANGO ZAIO JOAQUINA AZCONOBIETA ESNAL-i (IFZ: 15077489T) obra hau egiteko: USURBILGO UDAL-MUGARTEAN (GIPUZKOA), SARIAKOLA EDO KOSKOLLOKO ERREKAREN ESKUINALDEKO IBILGUEN POLIZIA-EREMUAN, GOROSTIDI BASERRIA, HARAGITARAKO BEHI- AZIENDENTZAKO UKUILUA EGITEKO OBRAK . Hemen egingo da obra:

Identifikatzailea:	ZO1
Arroa:	Oria Intracomunitario
Ur masa:	Zona drenante a Oria – Oligohalino
Cauce:	SARIAKOLA
Ertza:	Eskuinaldea
Koordenadak ETRS89:	X1=574.140 Y1=4.793.274
Udalerrria:	Usurbil
Lurralde HistORIKOA:	Gipuzkoa
Ibilgurako gutxieneko distantzia:	6-7 m
Arro-azalera:	0,65 km ²
Uholde arriskua:	EZ
ZFP:	EZ
PUAHA:	EZ
Ertzen LPS betetzea:	LPS betetzen du



Usurbilgo Udala

HBBE:	EZ
KBE:	EZ
IIE:	EZ
Aurretiko plangintza-txostena:	EZ

Usurbilgo (Gipuzkoa) udalerrian, Sariakola edo Koskolloko errekaen eskuin ertzeko ibilguen zaintza-eremuan, Usurbilgo Gorostidi baserriko nekazaritza-ustiategiaren beharrak asetzeko ukuilu bat eraikitzea planteatzen da.

Proiektatutako ukuiluak oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko estalkia ditu. Gutxi gorabehera 15 metroko luzera x 10 metroko zabalera izango du, eta 5 metroko garaiera gailurrean. Eraikitako azalera 155 m²-koa izango da.

Ukuilua, bere punturik okerreanean, 6-7 metro atzeratzen da errekaen eskuineko ertzetik, eta, horrenbestez, Uraren Legeak eta haren Erregelamenduak ezartzen duten 5 metroko zortasuna libre eta natural mantentzen da.

Ustiategian, simaurra egunero aterako da, eta zuzenean bertako lursailetara: belardiak, baratzea, sagarrondoak...

Bestalde, ukuilua estali egingo da eta hormigoi armatuzko zolata izango du, hasiera batean iragazgaitasuna bermatzen duena. Halaber, ukuilua inguratuz horma txiki bat egingo da, ukuiluaren estankotasuna bermatzeko eta sortutako hondakinekin erreka ez kutsatzeko. Beraz, ez dago euriarekiko interferentziarik eta mindak ez dituzte aire zabalean gordeko errekatik gertu.

Bigarrena.- Baimen horrek bete egin beharko ditu horrelako baimenei eskatzen zaizkien baldintzak, hau da: Uraren Legeak, hura garatzen duten xedapenek eta oro har ezartzekoak diren gainerakoek ezarritakoak. Bereziki, hauek bete beharko dira:

BERARIAZKOAK

1.-Lanak aurkeztutako agirien arabera egin beharko dira, baldin eta baimenaren baldintzak aldatzen ez badira.

2.-Ibai-ibilguaren ondoan 5 metroko zortasun- aldea irekita eta egoera naturalean utziko da, seinaleztatzeko zintarekin balizatuta, tarte horretan ibilgailuak pasa ez daitezen, eta materialak edo beteketak, etxolak edo ontziak, itxiturak edo kutxetak pilatu ez daitezen, ez aldi batean ez behin-behinean.

3.-Obren eraginpeko erreka-stoaren ertza birlandatu egingo da, ibaiertzeko berezko zuhaitz- eta zuhaixka-espezie autoktonoak landatuz.

4.-Ukuiluaren estankotasuna eta iragazgaitasuna bermatu beharko da ukuiluan sor daitezkeen hondakinekin (mindak, simaurra) errekaen kutsadura saihesteko, eta erabat debekatuta dago hondakin horiek barrutitik



Usurbilgo Udala

kanpo biltegitratzea.

5.-Ez lanetan ez aktibitatean zehar, ezingo dira isuriak, zaborrak, obra-hondakinak, etab. ibaira bota edo ur-bazterreko eremuan utzi. Soberakinak baimendutako hondakindegira batera eraman beharko dira.

6.-Telefonoz abisatuko zaio Uraren Euskal Agentziaren ur-ikuskatzaileari lanak hasi aurretik.

7.-Baimen honen babesean ez da onartuko ibaietako urik biltzea, ibaietara hondakin-urik isurtzea ezta ibilguetan kokatutako ondasunen aprobetxamendurik egitea, aurretik administrazio baimenik izan gabe.

8.-Lanak, 12 hilabetetan amaituko dira, lanak baimentzen direlako Ebazpena jakinarazten den egunetik hasita, eta idatziz jakinaraziko da lanak amaitu direla, lanak behin betiko onartzeko dagokion akta egiteko. Lanak epe barruan ez eginez gero, luzapen bakarra eskatu ahal izango da, emandako epea agortu baino lehen. Lanak egin ezinaren arrazoiak, falta diren jarduerak eta lanak bukatzeko estimatzen den epea azalduz.

IZAERA OROKORREKOAK

1.- Baimen horrek baimena ematen du aipatutako obra berariaz adierazitako ibilguaren zaintza-eremuan bakarrik egiteko, baimenaren baldintzak betez. Ereduak, betiere, eutsi egingo dio bere izaerari: ezin izango da bideratu baimendutakoa ez den erabileretara, eta bertan ezin izango da beste eraikuntzarik egin. Era berean, ezin izango da lagapenik, trukerik ez antzekorik egin, aurretiazko baimenik gabe.

2.- Baimen honek ez du gaitzen jabari publiko hidraulikoa okupatu zein bertan erabilera edo aprobetxamendu berezi edo pribatiboa egiteko.

3.- Uraren legerian aurreikusitako ondorioetarako bakarrik ematen da baimen hau, eta ez du zerikusirik beste organoren batzuek eman beharreko beste edozein baimen, eskumen edo administrazio-egintzarekin.

4.- Hirugarrenei kalterik eragin gabe eta jabetza-eskubideak salbu utzita ematen da baimena, eta nahitaez egin beharko dira dauden zortasunak gorde edo ordezkatzeko beharrezko obrak. Ertzetako erabilera publikoko zortasuna libre utzi beharko da beti. Bide-zorra jarri behar izanez gero, Agentzia honi eskatu beharko zaio baimena, horren beharrezko arrazoiak azalduz.

5.- Beti ekidin beharko da obrak egin bitartean ibaiko urak uhertzea, eta debekatuta dago hondakin-materialak ibaira botatzea zein ertzetan uztea.

6.- Uraren Euskal Agentziak, bere eskumenak erabiliz, egoki iruditzen zaion edozein ikuskaritza egin ahal izango du, baimendu diren obrak eraikitzeke garaian nahiz obra horiek ustiatzeko garaian.

7.- Ustiapen osoa edo partziala egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da



Usurbilgo Udala

obrak behin betiko onartzeko akta onestea. Ondorioz, obrak amaitzen direnean, Agentzia honi jakinarazi beharko zaio, obrak behin betiko onartzeko akta egin dezan. Akta horretan jaso beharko da obran bete egin direla ezarritako baldintza guztiak eta ezarri dakizkiokeen indarrean dauden xedapenak.

8.- Baimena emateko, ibai-arrantzaren eta arriskuan dauden espezieen babespen arloan indarrean dauden xedapenak eta arrain- hazkundearen arloan erakunde eskudunak ezarritako berariazko aginduak bete behar dira, eta aginduak betearazteaz erakunde hori arduratuko da.

9.- Baimen honen inguruan edozein aldaketa egin ahal izateko, Uraren Euskal Agentziaren aurretzako oniritzia beharko da. Agentziaren eskumenen esparruan, obra, zortasun eta lanengatik organo eskudunak ibilguan ezartzea erabakitzen duen aldaketa oro, baimenaren titularra den pertsona edo erakundeak gauzatu beharko du, bere kontura.

10.- Titularra den pertsona edo erakundeak baimenean ezarrita dagoen baldintzaren bat bete ezean, eta legez aurreikusitako suposizioetan, Uraren Euskal Agentziak baliogabetu egin ahal izango du baimen hau, titularrari entzunaldia eskaini ondoren, arrazoituta ebazpen bidez.

11.- Husteko ohiko egoeran utzi beharko du jarduketak hartzen duen eremua baimenaren titularra den pertsona edo erakundeak, baita baimena baliogabetzen bada ere, eta behar beste neurri hartu ahal izango dira, eginbehar hau beteko dela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdun pertsona guztiei jakinarazteko agintzea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Uraren ekainaren 23ko 1/2006

Legearen 6.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumeneko sailburuaren aurrean HILABETEKO epean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Bigarrena.- Eskatzaileari jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek.

Vitoria-Gasteiz,

Antonio Aiz Salazar
Zuzendari nagusia

TXOSTEN TEKNIKOA



Usurbilgo Udala

Aurkeztutako Exekuzio Proiektua aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2021eko maiatzaren 20an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKO
Udal Teknikariak Alkate jaunari
GOROSTIDI BASERRIAN. 1 POLIGONOKO 34. PARTZELAN BEHIEN
HARAGITARAKO UKUILUA

exekuzio proiektuari txostena

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04 2020/329

P.E.M. 50.916,26 €

Hondakinen kudeaketarako azterlana: 516,88 €. Fidantza (%120) = 620,26 €

AURREKARIAK

- 2020ko irailak 30ean interesatuak 1 poligonoko 34. partzelan behientzako haragitarako ukuilua egiteko baimen eskaera aurkeztu zuen. Eskaerarekin batera, exekuzio proiektua aurkeztu zuen, dagokion aurrekontuarekin.
- Ukuilua Sarikola erreka eremuan egonik, URA-ra ere bidali zen, eta 2020ko azaroak 16ean eta ALDEKO txostena igorri zuen.
- 2021eko martxoak 24ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, landa garapeneko ALDEKO txostena igorri du.

ARAUDIA

- Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bategina.
- 515/2009 dekretua, abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoa ezartzen dituenak.

AZTERKETA eta PROPOSAMENA

Interesatuak aurkeztutako eskaeran memoria, eraikitze memoria eta eranskinak aurkeztu dira

Eraikitze proiektua aztertuta ondorengo esan daiteke.

- **Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauak betetzea.** Landa eremuko eraikinen inguruko baldintzak zehazten diren 53. artikuluko baldintzak betetzen ditu.

Garatu nahi den ukuilua nekazaritza eta abeltzaintza babesteko lurzoru ez urbanizagarrian kokatzen da. Udal araudiaren baitan sustatutako jarduera bat da eta beraz baimengarria da.

- 82/1998 Foru Dekretuak zehaztu bezala, izapidetzan **Aldundiko Nekazaritza Departamenduko aldeko txostena badu** ukuiluak.
- Sarikola erreka eremuan egonik, **URA-ko aldeko txostena ere badu.**



Usurbilgo Udala

- Txosten honetan zehazten ez den arren, indarrean den araudi aplikagarria betetzen ez duen ezaugarri/elementu/obra-ren bat barneratzen badu proiektuak, ezinbestean araudira egokitu beharko da, eta beraz, ez da txosten honetan inplizituko ontzat ematen.

2- ONDORIOAK

Goian aipaturikoa jarraikiz, 1 poligonoko 34. partzelan behien haragitarako ukuilua egiteko ALDEKO txostena idazten da, beti ere hurrengo baldintzak zehaztuz.

- JARDUERA BAIMENA: Jjarduera abian jartzeko, memorian jasotzen den moduan, sustatzaileak jarduera baimena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera ezartzeko. (-0 ALU (Azienda Larri Unitate) baino gehiago balira jarduera baimena bestela aurretiazko komunikazioa), eragin higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak zehaztuz.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 516,880€-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (620,26€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- ZUINKETA AKTA: Obrak legeztatze ezinbestean ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da udal aparejadorearekin.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obrak hasteko epe gehienekoa: 6 hilabete.
 - Obrak geldituta egon litezkeen epe gehienekoa: 6 hilabete.
 - Obrak egikaritzeko gehieneko epea: 1 urte.
- LEHEN ERABILERA BAIMENA: Obra amaitutakoan obra amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da eta lehen erabilera baimena eskatu.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

UDAL INGURUMEN TEKNIKARIA
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi.

Gauzak horrela, udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JOAQUINA AZKONOBETA ESNAL andereari, Aginagan, Gorostidi baserriko lurretan, landaluerreko 1. poligonoko 34. partzelan haragitarako behi-aziendarentzako ukuilua eraikitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Jose Mari Echeveste Odriozola ingeniari industrialak 2020ko irailean idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 516,88 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (620,26 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

620,26 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2020-0329*” jarriaz kontzeptuan.

- **Obrak hasi aurretik**, obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da udal aparejadorearekin. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2020ko azaroaren 12ko Ebazpenean zehaztutako baldintzak beteko dira.
- Ezinbestean indarrean dagoen araudia bete beharko da: EKT, RITE eta gainontzeko araudi teknikoaren betekizunak.
- Obra baimenaren epeak:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.



Usurbilgo Udala

- Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datoze adieraziz.

- Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

- Lurralde kontribuzioaren alta: U4.

- **JARDUERA BAIMENA:** Jarduera abian jartzeko, sustatzaileak jarduera baimena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharko du, eragin higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak zehaztuz.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- HIRI ANTOLAMENDUKO A-107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107.11 EXEKUZIO UNITATEKO URBANIZAZIO PROIEKTUA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Espediente zenbakia: HZ.01/2015-0043

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 30ean, besteak beste, zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.11 Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektua hasieraz onartzea udal aparejadoreak bere txostenean zehaztutako baldintzarekin.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

Espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez, ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (74. zenbakia): 2021-04-23
- Gara: 2021-04-15
- Berria: 2021-04-15
- El Diario Vasco: 2021-04-15

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean, ez da inolako alegaziorik tartekatu.

Gauzak horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.11 Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektua behin betikoz onartzea udal aparejadoreak bere txostenean zehaztutako baldintzekin.

BIGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eremuko sustatzaileei ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.